

K...eta! Kitto!

2016-III-18

966 zkia.



Ametsa gauzatzeko jauziaren aurrean



**GARBITEGIA
autozerbitzua**

Ordubetean zure erropa garbitu eta sikatuta



Speed Queen®



Ego-gain, 15

bus
geltoki
ondoan

**astelehenetik igandera
zabalik: 08:00-22:00**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Carlos Rodriguez / latulasport.es

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren eskerrak

Amasa Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarteak eskertu nahi dio **Eibarko Klub Deportiboari** azaroan Untzagan gauzatutako "Jake Mate a la Fibrosis Quística" izeneko ekitaldia antolatzeke eman zizun laguntzagatik. Halako eguraldi txarra izanda, ahalegin handia egin behar izan zenuten, batez ere

Xake Sailakoek. Gipuzkoako afektatuek halako ekin-tzak behar dituzte euren bizitza ahalik eta erosoena izateko. Hori dela eta, Elkartetik espero dugu hori etorkizunerako elkarlan baten jarraipenerako izatea. Bihotz bihotzez, mila esker.

Fernando Markina (Amasako presidenteordea)

Ikur espainolik ez!!

Gaur egun, Euskal herrian zehar, gure naziotasuna ukatzen diguten hamaika ikur aurki ditzakegu, gaztelarazko karteletatik, kale izendegiraino. Gure herriatik buelta bat baino ez dugu eman behar ikur horiez joserik gaudela ikusteko. Ikur inposatu hauek edota beste edonolako inposaketek, gure identitatea bigarren maila batean lagatzeaz gain, zapaldu egiten dute. Hau onartezina da, ondorioz Euskal Herriarrok garen heinean gure betebeharra Euskal Identitatea bizirik mantentzea da. Bestalde, etorkizunean non geratuko dira gure herriaren defentsan lan egin duten pertsonak? Edota nola deituko diegu gure hiriburuei, Donostia-

San Sebastian? Vitoria-Gasteiz? Ez genituen hiri horien izenak jada euskaraz ezarrita? Hori dela eta bada garaia ikur hauek atzean utzi eta ezabatzeke, gureak diren ikurak kaleratzeko, etorkizuneko Euskal Herria independentea eraikitzen hasteko.

Argi dago, Euskal Estatu euskalduna eraikitzeke bidean, oztopo bat baino ez direla. Ondorioz, gure egin-beharrak, ikur hauek guztiak gure herrietatik kentzea da eta hauek arrotzak direla ikustaraztea, inposizio hutsak eta batez ere, **espainolak!! Ikur espainolez beteriko Eibartik bagoaz!**

Eibarko Ernai

ASTE SANTUAN ALERIK EZ

Datorren astean ez da alerik izango. Apirilaren 1ean bueltatuko gara normaltasunera.

ERREDAKZIOA



ORDU ALDAKETA

hilaren 27an

HURRENGO ASTEKO DOMEKAN



Martxoko azken domekan (hau da, 27an, DATORREN ASTEKO DOMEKAN) **udaberriko ordutegia** sartuko da indarrean. Zapatu horretatik domekarako goizaldeko 02.00ak ailegatzean, erloju guztiak ordu bete aurreratu egin beharko ditugu, 03.00etaraino. Ofizialki **ORDUBETE GUTXIAGO** izango du asteburu horretako domekak. Horrela, agur esango diogu indarrean izan den neguko ordutegiari. Udako ordutegi berri horrek urriaren 30era arte iraungo du; egun horretan negukoak jarriko da berriro indarrean.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAGA.- Utzi. "Eruango destazu Plazentzira? Bai, lagaik atzian!"

LAGAZALE.- Ardurabakua, utzia. "Ez don mira egittekua zapatak menbrilluaren onduan gordetzia, hain don lagazalia".

astean esanak

"Guztiok interdependentek gara, gure bizitzako unerren batean ezintasun egoeraren batean izan gara edo izango gara. Ebidentzia hori aipatzea ez da erraza, baina funtsezkoa da gure bizitza, errealitatea eta agenda politikoa aintzat hartzerakoan. Kontua da norbaitek gure oinarritzko zaintza egiten duenean, profesional gisa eta ordainsari baten truke, ez zaizkiola gutxieneko berme sozial eta eskubide laboralak aitortzen. Batzuentzat lan horiek etxekoandarearen eginbeharren luzapena besterik ez direlako"

(JONE BENGOTXEA, SINDIKALISTA)

"Boliviaren ez da mendebaldean moduan; munduaren parte honetan, lanaren kultura bada. Ezin dugu imajinatu baserriko haur bat, kitxua edo aimara, lanaren bidez gizarteratzen ez denik. Haur aktiboa da, familiaren berritze prozesuan parte hartzen duena. Lana gizarteratzeko tresna oso azkarra da; ez da mendebaldeak defendatzen duen ikuspegia. Horregatik, lege honek planteatzen du haur orok baimena beharko duela lan egiteko. Eta lan egin behar duela frogatzeko, pobrezia baldintzak bete beharko ditu. Haurren lana debekatu gero, lan esplotazioa ziurragoa da, ezkutuan egingo zelako"

(JORGE ANTONIO DOMIC, PSIKOLOGOA)

"Muturreko bi joera txatxu antzematen ditut hitanoaren erabilerari dagokionez. Batetik, badira guraso eta irakasle hiper-demokratikak, seme-alabei eta ikasleei eurekin hika hitz egiten uztearen aldekoak. Astakeria latza da hori, gazte jendeari nagusiekin hika aritzeko baimena emanez gero hitanoak ez bailuke balio izango solaskideen arteko kidetasuna markatzeko. Gaur egun euskarak horretantxe duenean, erregistro informal ludikoetan, gabeziarik larriena. Beste muturrean hezkuntza-sistema eta hedabideak daude, euskarazkoak: hor hutsaren hurrengo presentzia du hitanoak"

(JOXERRA GARZIA, IRAKASLEA)



IKER ARANBERRI

Harresi ikusezinak

Aspaldian hedabideetan gehien inpaktatu nauen irudietako bat da Aylan Kurdiren hilotzarena. Turkiako hondartza batean itota azaldu zen irailen, bere familiarekin batera Siria utzi eta Europa aberatserako bidaiaren epilogo tristean. Orduetik ia 400 ume hil dira Mediterraneoan zeharkatzen, batez beste egunean bi. Askotan esan izan da mendebaldeko herrialdeetan bizi dugun krisi ekonomiko egoera hau *de facto* hirugarren mundu gerra dela; oraingoan, baina, murrizketa ekonomikoetan, eskubide sozialen deuseztean eta indartsuenekiko mendekotasunean (merkatuak, superpotentziak...) bilakatu direla bonbak. Ikusten ez den guda. Mediterraneo eta Europar Batasunaren errefuxiatuekiko jarrera, aldiz, Alemanian izandako edota egun Gazan dagoen harresiaren aldaera ikusezina dela gaineratuko nuke. Ikusezina da ez ikustea ezinezkoa delako bakarrik, baizik eta ikusi nahi ez dugulako ere. Hainbeste arbuatzen ditugun harresi eta horma horietako bat. Ikusezina agian, baina erreala. Gerratik ihesi datozenei horma jarri diete gobernuek muturren parean eta etengabe kolpatzen ari dira bere kontra, odolustuz. Duela egun batzuk Aylanen beste argazki bat ikusi nuen. Mediterraneoan zeharkatzeko txalupan ateratako argazkia zen. Lotan zihoan. Bitxia da haur horren bi argazki ezagutzea: bietan etzanda eta bietan begiak itxiak ditu. Batean, ordea, bizirik dago: lo, mundu eta bizitza hobe batekin ametsetan agian. Bigarren argazkian, berriz, begiak itxiak ditu baita ere: baina ametsek dagoeneko ihes egin diote, itxaropen orok bezala.

Plenuak internetetik zuzenian

Gaurtik hasita, aurrerantzean udalak egiten dituan udalbatzak internet bidez zuzenian jarraitzeko aukeria egongo da. Gaur arratsaldian, 17:30xean erabiliko dabe "streaming" bidezko emisiño-sistemian estreiñeko, 2016. urteko udal aurrekontua onartzeko pleno berezian. Hórreri eskerrak udalbatza guztiak, ohikuek (hillero azken astelehena, 19:30xean) zein ezohikuek, interneterako konexiñoa dakan ordenagaillu edo bestelako gailluetan zuzenian ikusi ahal izango dira www.eibar.eus helbidian sartu eta pantailaren eskubiko aldiari, goxan agertuko dan pleno aretoko irudixaren gainian klikatuz gero. Zuzenian ez eze, udalbatza guztien grabaziñoak interneten eskuragarri egongo dira, herritarrak nahi dabenian ikusteko aukeria izateko. Proiektua abiarazteko alderdi guztiak ados ipiñi dira eta emanaldixak zein grabaziñoak Ikusten enpresakuek egittia erabagi dabe, horretarako urtian 7.623 euro (BEZ barne) ordainduta.



asteko
130.472
datua

bisita jaso zittuan liburutegixak iaz, aurreko urtian baiño % 2,04 gehixago. Jende gehixen, 75.539 lagun arratsalde ibilli zan, baiña goizekuak (52.473) gora egitten segitzen dabe. Gaur egun 73.780 dokumentuk osatzen dabe funtsa eta iaz 11.147 bazkide (biztanlien %40,54) izatera aillegau ziran.

Eibar-Sahara alkartekuen liburu azokia

Eibar-Sahara alkartekuek as-teburuan liburu azokia ipiñi-ko dabe Untzagan, erabillittako liburuak saltzeko. Zapatuan eta domekan, egun bixetan zabalduko dabe azokia, 11:00etan hasi eta 19:00ak

arte (jarraixan, atsedendaldi barrik). Bestalde, alkarteko ordezkariak aditzera emon deskuenez, azokaren aitzaxiarekin "Oporrak Bakean" programari buruzko informaziñoa emongo detse interesa dake-

neri: "Momentuz, udan hiru haur etorriko dira Eibarrera eta seguruenik, dirua lortzen badugu, beste bi Mendarora joango dira". Oporrak Bakean udan Saharako umierri Euskal Herriko famelixeltan harrera egitteko programia da eta oin dala gitxi abestixa eta bideoklipa eskindu detsez. Kantuak Xabier Euzkitzeren hitzak dakaz eta musikia Emon taldiak ipiñi detsa. Bideoklipa egitteko orduan hainbaten laguntasuna euki eben, tartian eibar-tar batzuren: Saharako umeak hartzen dituzten familiak, Joseba Casasola, Asier Serrano, Ame Estudioak Axular Arizmendi, Rober Oviedo, Garoa Arizmendi... danak alkarlanian ibilli ziran Youtubera igo daben bideua osatzeko.



11:00etatik 19:00etara arte egongo da azokia zabalik, bixar eta etzi.

26. Toribio Etxebarria Sarixak abian

Aste honetan presentatu ditudue aurten 26 urte beteko dituduen Toribio Etxebarria Sarixak Miguel de los Toyos alkatiak eta Marisa Arriola Bic Gipuzkoako zuzendarixak. Ediziño honetarako barrittasunen artian, bestiak beste, aurten Elkargik eta Gipuzkoako Bazkundiak be "Enpresa Asmoak" atalian sarixak emongo dituduela dago, irabazlieri hain-



Marisa Arriola eta Miguel de los Toyos aurkezpenian.

bat zerbitzu eta espezializaziño haundiko aholkularitza eskinduta. Esandakuari jarraituta, "kualifikaziño altuko lanpostu ugari sortu ditudue oin arte Toribio Etxebarria sarixetan irabazle izan diran proiektuak eta bide horretatik sendo jarraitzia da helburua". Azpimarratzeko moduko beste barrittasun bat Ekimen Enpresarial Eibartarrari Aitormenak ek aurten Iñaki Goenagaren ize-na izango dabela da, Teknikerren sortzaillia izan zanaren omenez. Sarixak banatzen daben diruari begira inportantienak diran hōnetan, betiko lez, "Enpresa Asmoak" eta "Enpresa Berria" kategorixak bereiziko ditudue. Kandidaturak auzteko epia apirillaren 25era artekoa (15:00ak baiño lehen) izango da. Kandidaturak bialtzeko edo informaziño gehixago jasotzeko www.toribioechevarria.com helbidera jo leike.

Debabarrena-Truk azokia

Martxuaren 26xan Debabarrena-Truk truke eta bigarren esku azokia egingo da Untzagan, 10:00etatik 15:00etara, Debanaturak, Ingurumen eta jasangarriritasun heziketarako alkartiak antolatuta. Ikastetxiak zein partikularrak ipiñiko dabe postua eta, hōrrekin batera, Debabarrena-Truk stand informatibuan eskualde maillan hondakiñen prebenziñuaren inguruan martxan dagan kanpaiñari buruzko informaziñua emongo dabe eta aldamenian, Trukeleku ize nekuan, trukerako gauzak lagatzeko gunia egongo da. Izen-emotiak 5 euro balixo dau eta diru hori proiektu sozialekin batera bideratuko dabe FIARE Banka Etikaren bittartez. Azokan parte hartzeko edo informaziño



gehixago eskuratzeko 695 783 656 / 943 19 11 72 telefonuetara deittu, debanatura@hotmail.com helbidera idatzi edo herriakgarbirikzbb.blogspot.com.es/ webgunian begiratu leike.

autuan

NALUAREN DOKUMENTALA

NALUA talde feministak bere burua aurkezteko ekitaldixa antolatu dau gaur arratsalderako: 18:30etatik aurrera Portaleko areto nagusixan urtebetez prestatzen jardun daben "11 emakume, 11 bizipen, borroka 1" dokumentala estrenauko dabe. Horrekin batera, Soralezeko Korner Morea talde feministako kidiak "Mantazpitik" saio musikatua eskinduko dabe eta, gaiñera, "inguruko lagunen koraboraziñuak eta beste sorpresa batzuk be" egongo dirala aurreratu dabe.



ASTE SANTUA AZITTAINEN

Azittaingo elizan Aste Santuan egingo diran mezen ordutegixa hauxe izango dala emon nahi detse aditzera herrittarreri: Domeka Santuan (20xan), 11:00etan, erramuen bedeinkapena eta prozesiñua; Eguen Santuan (24an), 17:00etan, Jaunaren Azken Afarixa; Barixaku Santuan (25ian), 17:00etan, Jaunaren Nekaldixa eta Heriotza; Zapatu Santuan, 17:00etan, Pazko Gaubeilla; eta Pazko Domekan (27xan), 11:00etan, Jaunaren Piztueria.



Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

667 54 89 16 (Ritxar)

kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
P I N T U R A K



Txosnetarako "gune duiña" eskatzen dabe

Jaixak Herrixak Herrixandakok agerrialdixa egin eban astelehenian San Juan jaixetan txosnak Txaltxa Zelaixan ipintzeko udalari egindako proposamenaren harira egoeria azaltzeko eta proposamen horrekin bat egin daben taldien atxikimenduen barri emoteko. Aditzera eman ebenez, "hiru hillebete eta 11 egun falta dira San Juanak ospatzeko. Aurten be, urtero lez, jai herrikoi, parekide, parte-hartzaille eta euskaldunak antolatzen hasteko desiatzen gagoz. Baiña, atzera be, beste hainbestetan gertatu jakun bezala, trabak dittugu, udalak jarritako trabak".

Errebalen biharrian hasitta daguazela-eta, txosnak nun ipiñi pentsatzen ibilli eta gero, aukerarik onena Txaltxa Zelaixan ipintzia zala erabagi eta hala jakiñarazi zetsen udalari otsaillaren 19xan. Diñuenez, "udalak billera parte-hartzaillia egin eban handik aste bira eta, bittartian, gu erantzun baten zain jarraitzen genduan. Martxuarren 1ian egin zan billera horretan gure proposamena jokoiz kanpo geratu

zala ohartu giñan. Izan be, eta beste urte batzuetan ez bezala, barrakeruekin hitzarmena iñoiz baiño lehenago siñatu dabe aurten, kasualidadia emoten badau be, gure proposamena jaso eta hiru egunera". Gauzak hola, eta txosnak nun ipiñiko diran argi izan arte, gaztiak txosnak eta hórren inguruak antolatzeko modurik ez dakela kejatzen dira eta, agerrialdixa amaittu baiño lehen, txosnetarako gune duiñaren premiña daguala azpimarratu eben. Agerraldixan oin arte atxikimendua adierazi daben eragillien babesia izan eben: Klub Deportiboko Kultura Batzordea, Nalua, Eibarko Libre, Eibarko Ernai, EH Bildu, Armagiñak Jo Ta Ke F.T., Urko 14 F.T., LAB, Sortu, Sare, Hankamotxak, Eibar Saskibaloia, Gazte Asanblada, Arrate Kultur Elkarteko zuzendaritza, Legarreko Jai Batzordea, Amañako Jai Batzordea, Eibar Eskubaloia, Euskal Herrian Euskaraz, Eibarko Tritikilari Gazteak, Eibar Rugby Taldea, Bizimina, ELA, Mugi Panderoa eta Podemos / Ahal Dugu Eibar.



Pobrezia Energetikuaren kontrako moziña

Eibarko Podemos Ahal Duguk pobrezia energetikuaren kontra borrokatzeko eta persona eta famelixa ahulenak babesteko moziña aurkeztu barri dau udalian. Moziñuan udalari pobrezia energetikuak Eibarren dakan eragiña aztertzea eskatu detsa eta, horrekin batera, hornidurak moztia saihesteko asmoz, gasa, argixa eta urarekin hornitzen gaittuen enpresekin hitzarmen bat sustatzia bihar-biharrezkua dala diñue. Bestalde, Podemos Ahal Duguk aditzera emon deskunez, CES metoduari buruzko moziña be prest zekan, "baiña horren aurkezpena atzera bota dogu, 'kasualidadez' guk hori publiko egin eta hurrengo egunian beste udal-talde batek presentau eban-eta. Edozelan be, horrek ez dau gure borrokia geldittuko eta udalak moziño horreri babesia emon eta bilkuran onartzeko desiatzen gagoz, hola CES metodua Eibarren bere osotasunian aplikatzeko eta hedatzeko".

Jabetze Eskolako ikastaruetan izen-emotia

Andretxean egingo dan "Lidergoa, generoa eta adimen-emozionala" taillarrian izena emoteko epia zabalik dago (apirillaren 1era arte, Pegoran). Miriam Ociok emongo daben taillarra apirillaren 12 eta 19xan, maiatzaren 3, 10, 17, 24 eta 31n eta ekaiñaren 7xan (martitzenetan) izango da, 18:00etatik 20:00etara Andretxean. Antolatzailliak azaldu dabenez, "botere hierarkikotik kanpora, botere personalian oiñarritutako harreman ereduak ezagutuko dittugu. Mugatzen gaittuen siñes-



menak aztertuko dittugu eta, adimen emozionaletik, gure emozioñuen ezagutzan eta kudeaketan sakonduko dogu, bestiak beste". Ikastaro horretarako ez eze, Jabetze Eskolako beste ikastaruetan be emon leike izena. Preparau daben eskintzaren barruan "Jende aurrean hitz egiteko taillarra", "Gatazkak konpontzeko taillarra" eta "Orientazioa mendian" dagoz. Informaziño

gehixago nahi dabenak 943 70 08 28 telefonora deittu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi leike.

TUTULUMENDI



IDURRE
 IRIONDO

Errefuxiatuekin alkartasuna

Beste hiri askotan egindakuaeren bidetik, CARE taldekuak deittuta eguazten arratsaldian Untzagan alkarreratzea egin zan errefuxiatueri babesa adierazi eta Turkia-EB ituna salatze-ko. Europako Kontseilluak bixen arteko akordixua atzo aztertu bihar ebala eta, horren kontrako mobilizaziño morduia egin ziran bezperan. Bestalde, Eibarko EH Bil- du udal taldiak errefuxiatuen egoerari eta Europar Batasuna-Turkia akordixuari bu- ruzko adierazpen proposamena aurkeztu eban udalian martitzenian, "Eibar errefu- xiatueri harrerria egitteko hiri moduan be- re burua aurkeztan lehena izan zala-eta, bide horrerri jarraituta udalak adierazpen hori Europako Batzordeari, Europako es- tadueri eta bereziki, estadu espaiñolari"



aurkeztia eskatuta. Adierazpenian jasota- kuen artian, bestiak beste, "Europar Ba- tasuneko barne mugaldiak lehenbailehen zabaltzia, Europara aillegatzeko bide se- guruak ezartzia, asilo kontuetan naziño-

arteko legia betetzia, personen zirkulazi- ño libria bermatzia, eta egoera larri hau aldatzen ez dan bittartian udaletxe-ko bal- koitik Europar Batasuneko banderia ken- duko dogula adieraztia" dagoz.



Gure Esku Dago ekaiñerako biharrian

Eguaztenian billeria egin eben Gure Esku Dago herri dinami- kako kidiak Arrate Kultur Elkartian, urte hasieran abiatutako bazkide kanpaiñari buruzko informaziñua emoteko eta, horrekin batera, aurrera begirako asmuak azaltzeko. Horrekin batera ekai- ñerako ekitaldi berezixa preparatzeko biharrian hasitta dagoz. Bazkidetza kanpaiñari buruzko informaziño gehixago nahi dabe- nak interneten gureeskudago.eus helbidian begiratu leike.

Armerixako Ikasle Ohien Batzarra apirillaren 16xan

Armerixa Eskolako Ikasle Ohien Elkarteko LXVI. Ba- tzar Orrokorra datorren apirillaren 16xan izango da. Goi- zeko hamarretan, harrerria egin eta ziurtagirixak banatu eta gero hasiko da batzarra. Amaitzian, 12:15ian argazki ofi- ziala eterako dabe eta handik hamaiketakua hartzera juan- go dira. 13:15ak aldera, "Cooperación empresarial" hi- tzaldixa hasiko da eta, amaitzeko, Unzaga Plaza hotelian bazkarixa egingo dabe. Bazkalostian 1966ko promoiñokueri in- signiak eta 1991ekueri diplomak banatuko detsez. Bazkarira juan nahi dabenak 40 euro sartu biharko dittu Kutxabank-en, 2095



5035 03 1060010278 kontuan, izen-abizenak eta promoiñua adierazitta. Etorrera baieztatze-ko, barriz, 943 20 32 44 telefono- ra deittu edo elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi leike.

HERRI EKIMENEN EUSKARAZKO HEDABIDEAK

batzen dituen Hekimen elkarteak komunikabideon lanaren defentsa irmoa egin zuen joan den astean Eusko Legebiltzarrean, Kultura Batzordean. Euskal Hedabideak behin eta berriro esaten dabiltza 2008tik hona beheranzko joera etengabea hartu duela hedabideentzako laguntzak aurrekontu publikoetan.



Administrazioaren babesa hedabideei: ziurgabetasun eremua

Hekimen Euskal Hedabideen elkarteak sektoreaz egin duen diagnosa eta administrazioaren dirulaguntzen inguruan daukan iritzia azaldu zuen joan den astean Legebiltzarrean izandako agerraldian.

Alberto Barandiaran Hekimen-eko zuzendariaren esanetan, "garbi dago hedabideen garrantzi estrategikoa hizkuntzaren biziberritzean, eta sektorearen estrategikotasuna onartzen bada ere, dirulaguntzek ez dute bermatzen haien jardunaren jarraipena".

Hogei urtez jarraian Eusko Jaurlaritzak, diputazioek eta hainbat udalek bideratu dituzten aurrekontu publikoei esker sortu, garatu eta iraun dute hedabideak. "Baina inbertsio hori ez da fondorik gabeko zakua, eragin ekonomiko eta sozial oso garrantzitsua daukan inbertsioa da. Eta, hala ere nabarmendu behar dugu inbertsio hori behera doala, urtez urte", salatu zuen Barandiaranek. Hekimenen ustez, beste ahalegin bat egin behar da goian aipatutako guztiagatik hain garrantzitsuak diren hedabideak sustatzeko, garatzeko, eta etorkizunera begira jartzen laguntzeko.

Hekimen elkartearen barruan 50 komunikabidetik gora daude. Denen artean osatzen duten taldea ez da makala. 600 bat langile daude enpresa guztien artean lanean. **Lan baldintzak** dira sektorearen gabeziak batzuk, eta **berrikuntzak egitea ia ezinezkoa** da. Barandiaranek esanetan, "eraginkorrak dira euskal hedabideak, iristen dira. Erreferentzia dira euskal hiztunentzat".

Jaurlaritzak iazko "Euskarazko hedabideak sustatzeko" deialdian jasotako lan ildoari lotuta, dirua banatzeko orduan hedabideek lortzen duten irismena lehenetsiko du. Hekimenen ustez "gehiegizko garrantzia ematen zaio irizpide horri. Guretzat irismenaren irizpideari % 70 ematea desorekatuta dago. Beste gauza batzuk ere baloratu behar dira: kalitatea, estrategikotasuna eta berrikuntza, esate baterako".

Aurten 3 urterako deialdia egingo duela iragarri du Jaurlaritzak. Hori sektoreak berak urteetan eskatu du, "baina ez dira kontuan hartu horrekin batera Hekimenetik eskatutako hainbat gauza: diru poltsa handitzea eta irizpideen inguruko adostasuna lortzea batipat".

...eta kitto!-ren egoera

Gurera ekarrita, ...eta kitto! euskara elkarteak sarritan publikoki azaldu duen bezala, ...eta kitto! astekariak urte oso latzak bizi izan ditu. Oso zaila da astero eibartarron etxetara ailegatuko den aldizkaria idatzi, maketatu eta banatzea, eta aurrera jarraitu ahal izateko neurri gogorrak hartu behar izan dira: orrialde kopurua txikitu, langile kopurua gutxitu, soldatak murriztu... Hala ere, "urte hauetan gure lanarekin aurrera jarraitu dugu, egiten dugun honetan sinisten dugulako eta herritarren babesa sentitzen dugulako. Are gehiago, langile gutxiagorekin astekaria, webgunea eta sare sozialak indartu ditugu".

...eta kitto! astekaria %61an autofinanziatu egiten da, publizitatea eta herri ekimenaren bitartez. Gainerako %18,5 Jaurlaritzatik, %9,5 Gipuzkoako Foru Aldunditik eta %12 Eibarko Udalaren dirulaguntzen bidez finantzitzen da.

Euskara Elkarteak azaldu duenez: "Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal hedabideentzat egiten dituzten dirulaguntza deialdiak gero eta beranduago kaleratzen dira eta ebazpena, hau da, zer jasoko dugun jakiten dugunerako erraza da uztaila inguru izatea. Ordurako urte erdia pasatuta dago, hau da, urte erdiko gastua eginda dago jakin gabe zer etorriko den".

Aurten are zailagoa izango da Gipuzkoako Euskal hedabideentzat aurreikuspenik egitea, izan ere Gi-

puzkoako Foru Aldundiak, Europar Batasunak eman behar duen baimen berezi bat dela medio ez baitu dirulaguntza deialdirik argitaratuko iraila/urrira arte. Eusko Jaurlaritzak ere oraingoz ez du deialdirik argitaratu eta sei hilabeteko epea egoten denez ebazpena egiteko (hedabe bakoitzak jasoko duen ala ez eta, jasotzekotan, zenbat jasoko duen esateko), izan daiteke uda amaiera edota udazkenara arte ezer ere ez jakitea.

Egoera hori izanik, Euskara Elkartetik adierazi dutenez, "oso zaila da urteko aurrekontua prestatzea, urte amaierara arte Aldunditik eta Jaurlaritzatik ezer jasoko dugun eta jasotzekotan zenbat izango den jakin gabe. Momentu honetan Udaletik jaso izan ditugun 35.041€, eta aurten Bilduk egindako zuzenketari esker jasoko ditugun 25.000€ dira gure oinarri ziur bakarra. 60.000€ horiekin astekaria kalera-tzeaz gain, webgunea ere egunero-egunero elikatuko dugu. 17 zentimo ipintzen ditu Eibarko Udalak '...eta kitto!' bakoitzeko, tamalez, kopuru hau aldameneko herrietako hedabideek (Ermuko 'Drogetteniturri' eta Elgoibarko 'Barren', esaterako) jasotzen duten babesetik urruti gelditzen da. Hala ere, ezin dugu ukatu proiektuak bizirauteko arnasaldia emango digula diru horrek, batez ere gainontzeko admsintraiziotatik urte amaierara arte zentimo bakar bat ere ikusiko ez dugula jakinda".

Bihar, zapatua, Eibarko lore, landare eta zuhaitz azoka izango dugu Eibarren. Seigarren edizioa izango da aurtengoa eta 12 parte-hartzaile izango ditugu Urkizun eurek ekoiztutako landareak, sendabelarrak eta landareekin egindako produktu kosmetikoak erakusten eta saltzen. 11:30ean haurrendako tailerra izango da. Guzti honetaz Juantxo Pollacino Dekolore elkarteko buruarekin egin dugu berba.

JUANTXO POLLACINO (landare ekoizlea): "Kontsumitzaile eta ekoizleen arteko topagunea sortzea ezinbestekoa da"

- Bihar, zapatua (martxoak 19), Eibarko lore, landare eta zuhaitz azoka izango dugu Urkizun. Zer moduz joan dira aurreko urteak?

Eibartarren erantzuna orokorrean oso ona izan da, gure produktuekiko jakinmina azaldu izan dute eta hartuemonan atsegina izan da. Aurreko bost urteetan azokak izan duen harrera ikusita, merezi du azoka indartzeko ahalegina egiten jarraitzeak. Hala ere, esango nuke, kontsumo ohitura berriak direla eta, bai Eibarren bai Eibartik kanpo, txikitzen ari dela jendeak horrelako azoken inguruan duen interesa. Lehen mailako tokiko sektore hau mantentzeko beharrez jarraitu behar dugu.

- Zenbat parte-hartzaile izango dira eta zer aurkituko dugu bertan?

12 parte-hartzaile izango gara, gehienak landare haztegiak. Gainera, kosmetika eta medikuntza naturala lantzen dutenak eta artisauen bat ere egongo dira. Era askotako landareak egongo dira: sasoiak, barrukoak, zuhaitz eta zuhaixkak, aromatikoak, sendabelarrak eta sukaldekoak, kaktusak...

Kosmetika eta medikuntza arloko produktuak ere izango ditugu: jaboiak, kremak, hortzetako pasta, txanpuak... Hauek landare aromatiko eta sendagarrietan oinarrituta egoten dira. Horretaz gain sukaldaritzan erabiltzen diren haziak eta landareak eta sendabelarrak aurkituko ditugu.

Artisau bi etorriko dira. Euren lanak lore eta landare ziku eta prentsatuarekin egiten dituzte. Batak kuadroak egiten ditu, eta besteak oso zintzilari originalak.

- Haurrendako jarduerak ere antolatu dituzue...

Bai, 11:30ean hasiko den tailerrean lore eta

landare prentsatuarekin egindako orri markatzaileak egiten erakutsiko diegu, eta egindakoan etxera eraman ahal izango dituzte liburuetan erabiltzeko edota norbaiti oparitzeko.

- Dekolore elkartekoa zara. Zer da Dekolore eta zelako lana egiten du?

Bi arrazoi nagusi egon ziren Dekolore elkarte sortzeko: alde batetik, landare munduaren gainean dagoen kultura eta ezagutza eza, eta bestetik kontsumitzeko ohitura berrien aurrean tokiko ekoizleek daukagun babes gabezia. Gure lanildoetako bat ekoizle eta kontsumitzaileen arteko topagunea sortzea da, bien arteko komertzializazio zuzena sustatzeko asmoz. Azoka hauen bitartez, onura ekonomikoaz gain, ingurugiro mailako etekinak ere nahi ditugu. Azoka hauek tokiko ekonomia familiarrean oinarrituta daude, artisau-lana da eta naturako lehengaiak erabiltzen ditugu. Bestalde, espazio horiek erabiltzen ditugu haurrendako tailerrak eta beste era bateko jarduerak antolatzeko eta, modu horretan, gure grina eta ezagutza transmititzeko eta landareen gaineko kultura zabaltzeko. Gure webgunearen bitartez, www.landare-azokak.blogspot.com, Euskal

"Azoka hauek tokiko ekonomia familiarrean oinarrituta daude, artisau-lana da eta naturako lehengaiak erabiltzen ditugu. Bestalde, espazio horiek erabiltzen ditugu haurrendako tailerrak eta beste era bateko jarduerak antolatzeko"



Herrian antolatzen diren azokan guztien berrir ematen dugu.

- Sasoi honetan zer landare mota gomendatzen diguzu?

Era guztiko zuhaitzak eta zuhaixkak landatzeko une egokia da. Aldi berean sasoiak landareekin loreontziak berritzen has gaitetzeko, neguko landareekin (pentsamenduak, udaberri-lorak), edota udako loreekin (geranioak, sesamoak...)

- Zelan zaindu behar ditugu loreak eta landareak?

Landareak ondo zaintzeko kontuan hartu behar dira bere hazkuntzan eragiten duten 5 faktoreak: lurra edo substratua, elikagaia edo ongarria, ura, argia eta tenperatura. Landare bat erosten denean komenigarria da zainketa buruzko informazioa jasotzea, eta horretarako oso garrantzitsua da ekoizlearekin harreman zuzena izatea. Landare batzuk berez delikatuagoak izaten dira, baina, orokorrean, landare arruntenak ez dira bereziki delikatuak izaten.

- Zein da sasoirik onena sektoreretzat?

Argi eta garbi udaberria da loreak eta landareak saltzeko sasoirik onena. Alde batetik landare gehienentzat onuragarriagoa den eguraldia hasten delako eta, bestetik, lehen egun beroekin eta eguzkiarekin balkoiak eta lorategiak apaintzeko gogo handiagoa izaten duelako jendeak. Gainera, landare asko bere bizitzaren gailurrean daude, bai loratze aldetik bai itxura aldetik ere. Izan ere, hosto berriak eta disdiratsua izaten dituzte.

Ñaki Narbaiza, rally pilotua:

«Estatu mailan konpetitzea lorpen handia da guretzat»



Ingeniaritza elektronikoa ikasi arren, bere pasioa rally lasterketak dira. 28 urteko gazteak bere aitarengandik jaso zuen kirol honekiko zaletasuna eta pixkanaka, kopilotu eserlekutik hasita, pilotu izan eta konpetitzera iritsi zen. Euskal Herrian, serietik gertuen dauden kotxeen mailan, bigarren postua lortu zuen lehenengo urtean eta orain, duela hiru aste hasitako Espainiako txapelketan parte hartzen du, Hirurok tabernak eta Engimek-ek babestuta.

- Noiz da kopilotu izateari laga eta pilotuaren eserlekuan jartzeko momentua?

Azken batean, kirol oso garestia da eta, diru falta dela-eta, normalena kopilotu bezala hastea da. Rally mundura sartzeko modu naturala dela esan daiteke, ez dauka gastu handirik. Gainera, asko ikasten da lasterketei dagokienez, eta alboan dagoen pilotuak ere asko erakusten du. Dirua biltzen hasten zarenean ematen da jautzia. Oihartzun mediatikorik ez daukan kirola da eta sponsorrak behar ditugu gure gastuak estaltzeko.

Narbaizak Unai Etxeberria du lagun, kopilotu moduan. Beste argazkian, erabiltzen duten autoa.



- Fisikoki nola prestatzen zarete pilotuok?

Eserita goazenez, askok uste dute ez dela kirola. Baina bitxia izaten da autoan goazen bitartean jartzen diguten pulstometroari begiratzea eta 150 eta 160 pulstaziotik gora edukitzen ditugula ikustea. Desgaste fisiko izugarria ekartzen dute lasterketek. Batez ere rally luzeetan antzematen da hori, denborak aurrera egin ahala abiadura galtzen goazela ikusten dugunean. Normalean gure burua fisikoki entrenatzeko bizikleta, igeriketa, arinetan egitea, ... edozein kirol da ona gutxieneko forma fisikoari eusteko. Lasterketarako, bestalde, kart txikietan entrenatzen dugu, errepi-

deetan ibiltzea ez dagoelako baimenduta. Lasterketa egunetan, behin bakarrik pasa gaitzke pistatik eta poliki egiten dugun buelta da, oharrak hartzen joateko.

- Orain arte zein mailatan ibili zara?

Azken hiru urteetan Euskal Herriko txapelketan parte hartu dut: Markina, Durango, Gernika, ... Eta orain, hemendik apur bat irten nahian, Espainiako txapelketara salto egitea erabaki dugu. Nazio mailan oihartzuna du eta sari aldetik ere erakargarria da.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

Espainiako txapelketatik gora begiratzea errealitatetik urrun bizitzea da, ametsa. Estatukoan sekulako maila dago eta horra iritsi izana eta lehiatu ahal izatea lorpen handia da guretzat. Helburua bertan konpetitiboak izatea da.

33.298.125 €

Gaur arratsaldian onartuko dabe udaletxian 2016rako aurrekontu proposamena horretarako deittutako udal-plenuan. PSE-EEK aurkeztuko daben aurrekontuak ez dau ezetz jasoko, hala esan dabe-eta Udalian dagozen beste hiru alderdik. Irabaziko ordezkari bakarrak abstenidu egingo dala esan dau *"ixa baietza emoteko egon bagara be"*, eta beste bixak, bosna ziñegotzi dittuen EH Bilduk eta EAJ-PNVk, kontrakorik ez dabela egingo baietzatu dabelako, *"egindako zuzenketen zati haundixa onartu detsela-eta"* baietzua emon edo abstenidu egingo dira. Aurrekontua alderdi guztien artian onartzeko ahalegiña nabarmendu dabe ordezkariak.



lazko aurrekontua onartu zan plenua. Aurtengua gaur egingo da, 17:30ean. Artxiboa

Kontrako botorik izango ez daben AURREKONTUA

Udala gobernatzen daben PSE-EEK 31.942.465 euroko aurrekontuaren lan-proposamena aurkeztu zetsen beste alderdixerik. Eta, euren artian izandako negoziaziñuetan onartutako partidekin, aurrekontu hori 1.355.660 eurotan haunditu da. Azken aurrekontuarekin -iazkuarekin- konparatuta, gobernu taldiak %3,7an haunditu eban aurrekontua. Partida barrixekin, aurtengo aurrekontua iazkua baiño %7,9 haundixagua izango da: hau da, onartutako zuzenketak %4 pasata haunditu dau azken aurrekontua.

Bestalde, aurreko urtiotakuekin konparatuta, aurtengua aurrekontu haundixena da 2010etik. Ordukua 34 millioi eurokua izan zan, baiña haundixagua oindiokan izan zan urtebete lehenagokua: 2009xan 39 mi-

lloi eurotik gorakua onartu zan-eta. Handik aurrera, krisixaren eragiña Udalaren aurrekontuetan be nabarritu da, apurka-apurka *"hortik urtetan bagoiaz be, kontu haundi-xarekin jarraitu bihar dogulako"*. Horregaittik, aurreko hamarkadako 40 millioi inguruko aurrekontutik hamarkada honetako 30aren ingurukora pasatu gara.

Bestalde, Aste Santua ate joka dogunian onartuko da aurrekontua, aurreko urtietan baiño geroago. Hainbat arrazoi dagoz horretarako: legegintzaldi barrixan sartuta, lehelengo aurrekontua da gobernu-talde honentzat; ziñegotzixak be asko barrixak dira eta, hori gitxi balitz, aurreko interbentoria jubilau zan eta barrixa sartu da, beste udal txikiago batetik etorritakua, eta *"Udala ezagutu eta funtzionamenduaren mekanismuak hartzen juateko denporia bihar dau"*. Legiaren arabera hurrengo aurrekontuak onartuta egon biharko litzakez abenduaren 31rako, baiña iñongo udaletan ez da halakorik betetzen, *"Euskal Herrikuetan ez behintzat"*, De los Toyos alkatiak diñuan. Gehixenak otsailaren eta martxuaren artian onartzen ditue eta *"badira oindiokan onartu ez dituenak"*.

Bi millioi eta erdi Eusko Jaurlaritzatik

Aurrekontuari buruzko alkatetzak egindako txostenian hiru zutabe nagusitzen dira: garapen ekonomikuan, *"guriak ez diran kompetentzieren be heldu bihar detsagu, Udala horretaz arduratu bihar dalako, eta hortik doiaz horretan lagundu leikien instrumentuak sortziarena, biharrezko mikroklima hori sortzeko"*; arlo sozialian *"sen-*



Alberto Albistegi Enplegu, Garapen Ekonomikua eta Berrikuntza Sailleko ziñegotzixa eta Miguel de los Toyos alkatia.

sibilidadia erakutsi bihar dogu eta herrixak gertuko ikusi bihar gaittu"; eta, azkenik, birtza kalitatiari begira, *"akzesibilidadiari eta halakueri begiratu bihar detsagu"*.

Gobernu taldiak bestelako alderdiketan izandako harremanetan *"Eibar eredia dala"* diño alkatiak. *"Gu akordietara heltzeko borondatia erakutsi detsegu eta eurak berdin jokatu dabe gurekin. Jasotako zu-*

AZKEN URTEOTAKO AURREKONTUAK

2007.....	38.465 milla euro
2008.....	36.683 milla euro
2009.....	39.179 milla euro
2010.....	34.070 milla euro
2011.....	31.877 milla euro
2012.....	30.523 milla euro
2013.....	28.893 milla euro
2014.....	32.718 milla euro
2015.....	30.840 milla euro

aurtengo aurrekontua: 33.298.125

sarrerak

zuzeneko zergak	8.267.956
zeharkako zergak	310.000
tasak eta bestelako zergak	1.278.644
transferentzia arruntak	18.779.588
ondare sarrerak.....	134.400
inbertsio errealen besterenganatzia eta hirigintza jardueratik ondorioztatutakua	6.100
kapital transferentziak	2.585.000
finantza-aktibuak.....	37.800
finantza pasibuak	1.898.795
GUZTIRA	33.298.125

urteerak

personal gastuak.....	10.973.069
gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan ..	8.740.413
finantza gastuak.....	120.838
transferentzia arruntak	5.308.662
inbertsio errealak	6.956.766
kapital transferentziak.....	350.000
finantza-aktibuak.....	35.200
finantza pasibuak	813.170
GUZTIRA	33.298.125

zenketa asko gure asmuak indartzera etorri dira; esaterako, etorkizunian hartzeko genituan erabagi batzuk aurreratzea ekarri deskue eta holan ikusi dogu asmo berian gindoazela”.

Alkatiak PSE-EE Eusko Jaurlaritzan Urkulluren gobernuarekin alkarlanian jardutiak Eibarrerako dakan abantailak aittatzen ditu: *“Bixen artian lotutako akordixueri esker, Amañako pasia amaittu genduan iaz eta ospitala be bultzatu zan barrero. Holan, aurten bi millioi eta erdi euro gehitzen detsagu aurrekontuari eta, iaz emon zeskuen kopuru berarekin eta oin dala urte bi jaso genduaz beste hiru millioikin, zortzi millioi euro izango dittugu esku artian”*. Fondo Foraletik etorri leiken aportaziñua be hobetzen doa azken urtiotan: *“Iaz 278.000 euro gehixago jaso genduan eta aurtengo prebisiñuak %6xa igoko dala esaten desku”*.

Aurrekontuaren sarreraren arloan, transferentzia arruntak dira beti partida haundixena. Aurten be guztien %56ra iritsiko dira eta, eskatu biharreko kredituaren prebisi-

ñua kenduta, %60ra helduko litza ke. Ba horko ixa %90 Fondo Foraletik dator: 17.178.368 euro dagoz aurreikusita. Diputaziñuarekin lortutako akordixuen artian, alkatiak pozik dago *“Azitain eta Maltzagaren arteko bidegorrixaren inguruan azken aldixan lortutako konpromisuarengaittik”*.

7 millioi euro inbertsiñuetarako

Inbertsiñorako partidaren erregiña Errebalgo proiektua da: 2.320.000 dagoz bertara destinatuta. Atzetik dagoz herri inguruniak eta akzesibidadia hobetzeko lanak -horretan 1.900.000 euro jarriko dira- eta hirugarren partida garrantzitsuena ekipamendu eta eraginkortasun energetikua lortzeko 600.000 euroak osatuko dabe. Aurten herrixan egitteko lanen artian dagoz *“Txomoko goiko parkia, Eibarko Bizikletako plaza, Karmelitena, Mutiolako parkia, Isasiko espaloiak eta Aizarnako aparkalekua”*. Ipu ruako igerilekuko bestuarixuak konpon-



Itoitz Garcia-Anton pozik agertu da udalbatzak eztabaidetan erakutsitako jarrerarekin.

tzeko asmua dago eta baita biomasako galdara bat jartzekua, *“Arrateko Ama Birjiña ikastexian edo Iturburun, bixetako batian”*.

Patronatu autonomuen egoeraren esparruan, Kirol Patronatura 900.000 euro juaingo dira (*“bere aurrekontuaren %30 da, kuotak-eta %65era heltzen diralako”*), Musika Konserbatoriora 260.000 (*“hasieran gurasuak, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak aurre egitten zetsen, baktokak herenarekin, baiña azken aldixan Jaurlaritzak gitxiago eta guk gehixago ipintzen dogu”*) eta San Andres zaharren egoitzak beste 200.000 euro jasoko dittu, bataz beste.

Zorrari-eta begira, Udala oso egoera onian daguala diño alkatiak: *“Gaur egun %4aren bueltan izango gara, eta muga %25ian dago. Jakin izan dogu dirua aurreratzen eta ez genkaguna ez gastatzen eta ondo gagoz zirkulante edo ibilkorrian”*.

Bestelako hiri eredu bat

EH Bilduk osoko zuzenketia eta 35 emendakin partzial aurkeztu zittuan udalbatzak proposatutako aurrekontu proiektu-



EAJ-PNVko Mertxe Garate, Elena Ibañez, Josu Mendikute eta Eduardo Zubiaurrek aurrekontuak izan daben atzerapena kritikatu eben eta udal-talidiarekin lortutako adostasuna nabarmendu.



EH Bilduko Leire Abanzabalegi, Gorka Errasti, Igone Lamarain eta Josu Cristobal aurrekontuen inguruan haraiñegun emondako prentsaurrekuan. Adostasunera heltzeko lana nabarmendu eben.

tuari eta, eurretatik, 27 onartu detsaz. "Hiri sozialagua, ezkertiarra eta parte-hartzia-
 ren kultura sakontzen daben" bidian egin dittu ekarpenok talde abertzaliak. Aittatutako emendakiñak "herriarrek in landutakuak dirala" eta Gipuzkuako Fondo Foraletik "millioi erdi euro baiño gehixago etortziak" aurreko legegintzaldixan han EH Bilduk egindako kudeaketa ekonomiko onaren adierazgarri dala esan eben haraiñegun eskindutako prentsaurrekuan.

Onartutako zuzenketekin "800.000 euro inguru gehixago inbertiduko dira herrixan". Ekocenterra Eibarren inplantatzeko plana, Bizigune programaren kanpaiña, Eibarko diagnostiko soziala eta etxegabien zentsua dagoz onartutako emendakiñen artian eta, euskara eta kultur arluan, "...eta kitto!-rako dirulaguntza berrikuntzetarako,

Txonta kulturala, Eibarrera etorri-berrientzako Auzoko harrera-proiektua eta zinebonoa Coliseorako". Kohesiño sozialaren billa juan dira proposatutako zuzenketak.

Ekonomiaren berpizkundiarren billa

EAJ-PNVk millioi eta erdi euroko aldaketak proposatu zetsan udal taldixari, tartian 52 zuzenketa eskatuta. Azkenian PSE-EEK eurretako 24 onartu detsaz, "1.171.800 euroko balixua dakenak" eta Plan Estrategikua martxan ipintzeko konpromisua hartu dau. Partida horretako zati haundixa "ekonomixari bultzadia emoteko proiektuetara bideratuko dira". Hor tartian dagoz enpresa txiki eta ertaiñen barrikuntza proiektuetarako (100.000 euro), enpresa ideia barri eta ekintzailletarako inkubadora teknologikuaren sorreria

(200.000) eta enplegu plana martxan jartzia (beste 300.000 euroko ekarpena). Industria eta merkataritza arlorako beste proiektuetarako erabiliko diran 151.000 euroekin batera, "Plan Nagusixaren garapenerako neurrixak hartuko dirala" nabarmendu eben aurreko barixakuan EAJ-PNVko herriko ordezarrikak emondako prentsaurrekuan. Igogailluen proiektuetarako (Jardiñeta, Errekatxu, Birjiñape) eta Sansaburuko patixorako beste 200.000 euro gehitxia lortu dabe jeltzaliak.

Eibarrerako enplegu plana

Langabezixak gure herrixan dakan pisuari begiratu detse Irabazikuak eta, arazuari aurre egittuko, "Eibarrerako enplegu plana" proposatu eban Itoitz Garcia-Anton ziñegotzixak. "Eibartarrak kontratatzen dittuen enpreseri horrek ekarriko detsen gastuaren erdixa ordaintzia" proposatzen eban plan horretan. Holan 50 lanpostutik gora sortuko zirala diño, "beti be ikasten amaittu barri daben langabetuen eta 45 urtetik gorakuen eta aspaldittik lanik egin gabe daguzenen artian". Horrekin batera, herriko autonomo eta enpresentzako mikroredituak eskintzeko asmuarekin, "banka publikua sortzia" eskatu eben: "1.000 eta 2.000 euro bittarteko kredituak, interesik gabekuak eta 12-18 hillabeteko tartian ordaindu biharrekuak". Igogailluak ipintzeko, fatxadak barritzeko, euskaltegirako, ibilbide osasuntsurako eta hondakiñak bereizteko be diru-partidak eskatu dittue. Hamabi emendakin onartu detsez.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

SUMMER IN THE USA
 LEARNING ENGLISH · HAVING FUN · MAKING FRIENDS · BECOMING FAMILY

Pelikuletan bezala!
Udako programak USA-n
Azken plazak! Deitu orain!

www.summerintheusa.com **943 22 49 32**

PUBLI RESA

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea
 eta faxa: 943 70 14 97 publi.resa@euskalnet.net

gremioen gida



ANTENAK

AROTZAK

ELEKTRIZITATEA

BALATZ c.a.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

EDER
ateak
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK
EBANISTERIA - ERAKUSKETA iraner
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

Antena instalazioak
TDT / Satelitea
Informatika Zerbitzua
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
Miguel Angel Garcia
Mugikorra: 609 250 858
garciamiguel@movistar.es

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 18 50
E.I.T.
AJT zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea esk.

HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira

ERREFORMAK

AINARAVESGA ARKITEKTURAK

Urkizu pasealekua 7 behea
Tfnoa: 639 028 256
ainaravesga@hotmail.com

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

eta faxa: 943 203 903

ERAKUSKETA

Arikitzaneko Zubian

PINTURAK



José Luis Iriondo

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

LIBURUTEGIKO 2015eko TXOSTENA

Egun hauetan Liburutegiko 2015eko txostena argitaratu dugu. Txosten honetan liburutegiko zerbitzuen eta jardueren urteko laburpena ematen dugu ezagutzera.

Alde batetik gure zerbitzuen erabilera datuak ematen ditugu, eta, beste alde batetik, gure misioa betetzeko asmoarekin burututako jarduerak deskribatzen ditugu. Misioa Liburutegia herritarrentzat topaleku bilakatzea da, topaleku fisiko zein birtuala, liburutegien alorrean kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izateko: irakurketa eta etengabeko ikasketa sustatu, kulturaren hedapena bermatu, herriko fondoaren ikasketa eta ikerketa erraztu eta informazioaren teknologietarako sarbide egokia izan.

Aurkezten dugu, beraz, gure ustez Liburutegiak eskaini beharko lukeena planteatzen diren helburuak bete daitezzen, betiere dituen baliabideek ezartzen dituzten mugak kontuan hartuta.

Azpimarratzen dugu zer jotzen den garrantzitsutzat Eibarko Uda-



letik. Baina herritarren partaidetza falta zaigu, jasotzen saiatzen garen partaidetza hori, baina tantaka iristen zaiguna. Guretzat oso garrantzitsua da eskakizuna zein den jakitea, zerbitzuari buruzko itzaropenak zeintzuk diren, azken batean, zer espero den halako zerbitzu batengatik. Ziur aski ez da posible izango eskatzen zaigun guztia ematea, baina zuen iritziak lehentasunak jartzen lagunduko digu, betiere gure baliabideak kontuan izanda.

Horrexegatik, honen bitartez animatzen zaituztegu galdeztera, eskatzera, hobekuntzak proposatzera. Hori guztia mahai gainean jarriko da gure programazioa egiterakoan, gure urteko planak lanterakoan.



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—

Musika

“Aurri gara” - IZAKI GARDENAK

Jon Basaguren buru duen taldearen bigarren lanak omenaldia egin diote minari. Melodia leunek entzunaldia errazten dute, azpian gordetzen duen malenkonia eraldatuz. Orohar abesti argitsuak dira, behin sufritu ondoren indartuta atera den batek kantatuak.



“San Quirico” - KARIDAEKO BENTA

Jon Maia bertsolariarekin, Jon Manzidorrek (Gora Japon), Inaxio Tolosak (Kokakola eta barea), Aran Santamariak, Imanol Mantrolak eta Domentx Uzinek osatutako taldearen hirugarren diskoak euskal musika etnikoa mapan jartzea lortu zuen.



COBRAren diskoa salgai otsailaren 29az geroztik

Haritz Lete Kokeineko ahotsarekin batera, David Gonzalez Berri Txarrak-eko gitarrak, Josu Luengo Evirus69ko gitarrak eta Ekain Elortza Dineroko bateriak osatutako taldeak hirugarren lana kaleratu du. Hamar bat urte daramatza Cobrak kalean eta tarte horretan beste bi LP kaleratu ditu: “The Strong Arm of the Rock” 2007an eta “Thriller” 2011n. “Riffyard” hirugarren lan honetan riff esaldiei egin diete omen. Aurreko asteburuan Erreterian eta Bilboko Kafe Antzokian izan ziren, gaur Gasteizko Jimmy Jazz-en joko dute. Bestalde, hurrengo kontzertuen zerrendan honakoak aurki ditzazkegu: apirilaren 23an Durangoko Plateruenan, maiatzaren 21ean Ermuan Vertigo Rock Festivalean eta ekainaren erdialdean Gasteizko Azkena Rock Festivalean.

Urbateko waterpolistak Espainiako eta Euskadiko selekzioekin

Selekzio bietan izango dira Jon eta Eneko Treviño, biek ere Espainiakoaren deia jaso baitute hark antolatutako 2002an jaiotako teknifikazio jardunaldietan izateko eta, bestetik, infantil mailako Espainiako autonomien arteko torneoan ere izango direlako. Ez dira Urbateko ordezkari bakarrak izango azken horretan: Jone Gomezek, Irati Martinek eta Elene Molinak nesken selekzioarekin jardungo dute.

Azken jardunaldiari dagokionez, senior taldeak hamarna berdindu zuten Waterpolo Donostirekin hiribu-

ruan jokaturako Euskal Herriko ligako partiduan. Mailari eusteko borrokan puntuen premia dute eibartarrek, baina berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Hiru jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta bihar Orbean izango dute hurrengo erronka: Leioako Askartza B jasoko dute 14:30ean. Kadete mailako taldeak 16-9 irabazi zion Gasteizko Lautadari hasieratik amaierara arte agindu zuten neurketan. Eta infantil mailakoek 12-13 galdu zuten Orbea kiroldegian Bilboko Maristasekin.



Euskadiko selekzioarekin jokaturako duen boskotea.



Ardau eta Arrainen Bidea agurtu eta Aste Santuko irteerari begira

Aurreko zapatuan osatu zuten 40 mendizaleen taldeak Ardauek eta Arrainen Bidearen zortzigarren eta azken etapa, Gernika eta Bermeo lotzen. Eguraldia lagun izan zuten Klub Deportiboko mendi batzordekoek ibilbideko 19 kilometroak osatzeko. Orain Aste Santuko lau egungo irteera izango dute zain, aurtengo Cuenca mendilerroa egingo dutena. **Argazkian etapa guztiak osatu eta ibilaldia antolatu duen taldea (Perikoren taldea).**



Jardunaldi arraroa foball-zaletuan

Gol gutxien izan zituen denboraldiko jardunaldia izan zen Kirolbet liga txapelketako 22.a. Hamazazpi gol besterik ez ziren sartu eta, eurretako hamar, bi partidutan: Durango liderrak 5-0 irabazi zion Fontaneria Mujikari eta EzDok-ek ezustea eman zuten Azkena Adahiri 3-2 irabazita. Kontentek 2-1 irabazi zion Garajes Garcia.com-i eta beste bost partidutan emaitza bera eman zen, 1-0koa; baina, ez hori bakarrik, ezusteko bat baino gehiago izan zelako, Durango liderra mesedetuena irteteko. Bar Txokok eta Esmorgak atzerapausua eman zuten liga irabazteko, Bar Aretoarekin eta Sporting Novak-ekin galduta, Ipur Sagardotegiak Slow XOK-eri irabazi zion azkeneko arteko

lehian, eta Alkidebak -honek logikari jarraituta- Machado Tankemans-i irabazi zion.

Aipaturako emaitzekin, Durangok ihes egin du lidergoan eta orain Txoko bost puntura du, Azkena Adahi zortzira eta Alkideba eta Kontent 11ra. Sailkapeneko behealdera begiratu, Ipurrek Slow XOK-eri pasatu dio azken postua.



64 eibartar Antzuolako eskolarteko ibilaldi neurtuan

Domekan Gipuzkoako Eskolarteko 29. Ibilaldi Neurtuak egin ziren eta gure herriko ordezkariak Antzuolakoan izan ziren. Guztira 283 ikaslek egin zuten ibilbidea, 173 laguntzaile helduekin. Antzuolatarren atzetik (71), eibartarrena izan zen parte-hartze handiena, 64 mendizale txikirekin, J.A. Mogel, Urkizu, San Andres, Arrateko Andra Mari, Itzio, Amaña eta Aldatze ikastetxeetako neska-mutilekin.

Osoro eta Urkiola podiumaren ertzean Oñatiko duatloian

Saltoki taldeko Aitziber Urkiola eibartarrak podiumaren hirugarren toki eskuratu zuen aurreko zapatuan jokatu-tako Oñatiko Duatloian eta, aurreko probetan moduan, Pello Osoro laugarrena izan zen berriro ere. Delteco Eibar Triatloi taldeak beste zazpi ordezkari izan zituen Oñatiko proban, eta euren artean Iñigo Unanue bigarrena izan zen bereranoen V2 mailan. Bestalde, domekan Eguesen jokatu-tako duatloian Osorotarren nagusiak bezperako postu bera errepikatu zuen eta Txomin anai gazteak, lasterketa bikaina eginda, zazpigarren postuan amaitu zuen. **Argazkian Oñatin parte hartu zuen Hector Gisasola.**



Nuria GD

ko da bihar Durangoko IX. Duatloia, Euskal Herriko zirkuitorako seigarren proba puntuagarria. 10 kilometro oinez herri barruan, 35 bizikleta gainean (Abadiño, Elorrio, Berriz eta lurretatik pasatuta) eta beste 5 oinez izango ditu probak.

Bihar Durangon

Arratsaldeko 15:30ean hasi-

Somos Eibar-ek ia ezinezkoa du promozioa jokatzea

Asier Larrañaga, Mikel Zuloaga eta Lander Casado taldeko hiru goletzaile nagusien falta ondo igarri zuen Somos Eibar Eskubaloiak aurreko zapatuan. Ipuruan Elgoibarrek 23-27 galdu eta gero, eibartarrak sailkapeneko bosgarren tokiara jaitsi dira eta promozioa jokatzeko aukera emango zien bigarren postua bost puntura dute dagoeneko, liga amaitzeko zazpi jardunaldi besterik falta ez direnean. Avia Eibar Eskubaloia nesken talde nagusiak ere galdu egin zuen bere partidua Urdulizen (21-20). Harrobiko ordezkari, baina, hobeto joan zitzaizen jardunaldia: Haritzak 21-23 irabazi zuen Zarautzen eta igoerako play-offerako borrokan jarraitzen du eta Gipuzkoa Saria jokatzeko duten jubencil mailako Eibar Eskubaloiko taldeek bigarren postuan jarraitzen dute, euren partiduetan gailendu eta gero (mutilek 33-23 Zarautzi eta neskek 24-27 Zuri-Zuriri).



Haritzakoak garaile.



Intxausti eta Olaberria PuntuEUS-ekin Arraten

Beñat Intxausti eta Leire Olaberria txirindulariak Arraten izan ziren martitzen arratsaldean PuntuEUS Fundazioak Emakumeen Bira eta Euskal Herriko Itzuliaren harira egingo duen kanpaina iragartzen. Aipatutako bi proba horietan izango dira bira.eus eta itzulia.eus, "ekitaldi horietan ere euskara sustatzeko".



Jon Arana beterano baten aurka. Artxiboa

Eibarko hiru xakelari Donostiako Nazioarteko 39. Txapelketan

Julen Garro, Jon Arana eta Jose Antonio Garrido Klub Deportiboko xakelariak bihar hasi eta hilaren 26ra arte iraungo duen Donostiako Nazioarteko 39. xake txapelketan izango dira. Aipatutako torneo horrek liga moztuko du jardunaldi bakarraren faltan eta Klub Deportiboko B taldeak mailari eutsiko dion ala ez zailtzen dago jardunaldi horren menpe. Aurreko asteburuan

bina berdindu eta gero, apirilaren 9an jokatu den jardunaldian ez du aurkari errazik izango, igotzeko borrokatzen diharduen Andoain etorriko baita Eibarrera. Une honetan bi talde ditu puntu bakarrera eta beste bat puntu eta erdira. Goreneko taldeak galdu egin zuen bigarrenengoarekin Zarautzen eta sailkapeneko 4. postuan dago, ondo sailkatuta baina igotzeko aukerarik gabe.

Iker Martinez Gipuzkoako azpitxapeldun judoan

Kalamua klubeko judokak 81 kilotik beherako mailako finala galdu zuen Andoainen jokatu-tako Gipuzkoako kadete mailako txapelketan eta azpitxapeldun geratu zen. Horraino heltzeko jardunaldi bikaina egin zuen eibartarrek eta, horrela, baita apirilaren 10ean jokatu den Euskadikorako txartela lortu. Aurretik, dena dela, Jiu Jitsuko mundialean izango da lehiatzen.

Elene Varela Euskadiko txapelduna gimnasia



Varela erdian, lehen saria jaso ondoren.

Ipuruia taldeko gimnastak 11,067ko puntuazioa eskuratu zuen Euskadiko oinarritzko kadete mailako txapela janzteko aurriko zapatuan Gasteizen jokaturako lehiaketan. Emaiza horrekin, jakina, Espainiako txapelketarako txartela bereganatu zuen, ipuruako beste bost neskek lortu duten moduan: Nahia Arguizek (6.a), Malen Txurruak (8.a) eta Alaitz Aranbarrik (10.a) kadeteetan ere, eta Elena Sudupek (8.a) eta Indira del Pinok (11.a) jubeniletan. Lur Aranburu jubenila 16.a izan zen eta kanpoan geratu zen postu bakarrarengatik. Eta domekan jokaturako federatu absolutuen Euskal Ligako lehen fasean, Jennfer Hernandez bosgarrena izan zen aro ariketa batekin.

Bihar, bestalde, Altzako kiroldegian jokatu den Donosti Torneoan izango da Eibar-ko klubaren ordezkari zabal: senior eta infantil A taldeak joango dira eta maila indibidualen jardungo duten federatutako maila guztietakoak.



Aitor Montero motorzaleak Albaceten hasiko du denboraldia

Eibarko pilotoak VHC Liqui Moli Racing Team-ekin fitxatu du eta asteburu honetan CIV Abiadurako Autonomien arteko Txapelketari ekingo dio Albaceten, gaurtik domekara arte. Ez da denboraldi honetan Monterok izango duen erronka bakarra, asmoa du-eta Espainiako Abiadura Txapelketa Masterra bereganatzeko, horrela iaz lehiaketa horretan lortutako laugarren postua eta 2014an eskuratutako bigarrena hobetzeko. Aitor ilusionatuta dago bere Yamaha R6 berriarekin eta zorretan sentitzen da "VHC Liqui Moli Racing Team ekipokoekin eta kirolean jarduteko aurkitutako babesleekin".

Mtz. de Irujo eta Rezusta vs Artola eta Albisu

Finalerdietan diharduen Aspeko bikote bakarrak hil ala biziko partidua jokatu du domekan Artola-Albisu aurreko asteburuko beste bikote galtzailearen aurka.



Etzi Astelenan jokatu duen jaialdiko partidu nagusian galtzen duenak binakako txapelketaren finala ahaztu beharko du derrigorrez, hortik neurketaren garrantzia. Jaialdia hasteko, bi aurrelari finen arteko lehia ikusi ahal izango da: Elezkano II.a eta Irribarria izango dira aurrez aurre, Aretxabatak eta Merinok lagunduta hurrenez hurren. Eta jaialdia amaitzeko, Jaunarena-Urruzola eta Elordi-Cecilio bikoteen arteko lehia izango da.

Eibarrek Getafen jokatu du gaur (20:30)

Mendilibarren mutilek beste aukera bat izango dute gaur azken zalantzak baztertu eta hurrengo denboraldian 1. mailan jarraitzeko behar dituen puntuak eskuratzeko. Madrilgo taldeak bolada txarra darma, zortzi jardunalditan irabazi gabe, eta eibartarren aurkako partidua final gisa hartu-

ko dute. Aste honetako entrenamenduetan Antonio Luna, Keko Gontan, Jota Peleteiro eta Aleksandar Pantic izan dira taldekideekin eta litekeena da euretako batzuk Getafen jokatzeko aukera izatea. Lillo errekupe-ratio fasean dago eta Ekiza atzelaria kirofano-tik pasatu zen atzo Bartzelonan.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



KONTXI GURRUCHAGA (Kaleetan Kantuz zuzendaria)

- Zeintzuk hartuko duzue parte kontzertuan?

Gurekin batera Barakaldoko Gitarra Lagunak taldekoek, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako abesbatzak, akordeoi eta gitarra taldeek hartuko dute parte. Barakaldoko taldea eta gurea lehenagotik ezagutzen ginen. Iaz Barakaldon eurekin batera abesteko gonbidapena egin ziguten eta hara joan ginen. Horregatik, emanaldi berezi hau prestatzen hasi ginenean, eurei parte hartzeko eskatu genien eta baietz erantzun ziguten, pozarren. Gure moduan, talde amateurrak da eta, abesteaz gain, gitarra, perkusioa, lauda eta horrelako instrumentuak jotzen dituzte. Horrez gain, Juan Bautis-

“Kalean kantatzeko ohiturari eusteko asmoz sortu zen taldea orain dela 10 urte”

Bihar 12:00etan, "Belaunaldien arteko topaketa" izenburuari jarraituta, kontzertu berezia emango dute Coliseoan Kaleetan Kantuz abesbatzako kideek, beste hainbat taldek lagunduta. Abesbatzak herriko kaleak kantuan alaitzeari ekin ziola hamar urte bete dira aurten eta, horren aitzakiarekin, haur zein helduendako topaketa musikala izan nahi duen biharko emanaldia ilusio handiz prestatzen ibili dira. Kontzerturako sarrerak bi euro balio du.

ta Gisasola Musika Eskolan Marisol Arrillagarekin akordeoia ikasten ari diren 10-12 urte bitarteko ikasleak, Elena Martinek zuzentzen duen J.B. Gisasola abesbatzak eta Ana Caballerorekin gitarra ikasten ari diren umeetako batzuk hartuko dute parte.

- Eta nolako abestiak eskainiko dituzue?

Hasteko, Gitarra Lagunak taldekoek sei kantu eskainiko dituzte. Jarraian, Musika Eskolako txanda izango da: akordeoi eta triki taldeak hiru abesti jo eta, jarraian, gitarra taldekoek beste sei interpretatuko dituzte. Eta horiek amaitzean, Juan Bautista Gisasola abesbatzako neska-mutilek hiru abesti ezagun

kantatuko dituzte. Gu azkenak izango gara, lau zapabost abestirekin. Hori bai, agurtzeko talde guztiek elkarrekin kantu bat eskaintzeko asmoa daukagu.

- Errepertorioan euskerazko zein gaztelarazko abestiak daude...

Orain dela hamar urte Kaleetan Kantuz sortu zenean, hain zuzen ere, asmoetako bat Eibarren zegoen kantatzeko ohitura berreskuratzea zen. Orain dela urte batzuk oso normala izaten zen edozein tabernatan jendea kantuan entzutea eta, sasoi hartan behintzat, batez ere Latinerikako doinuak izaten ziren. Orduan euskerazko kantuak etxe-barruan abesten ziren batez ere; urteak pasatu behar izan ziren kalean entzuten hasi arte.



Bost pieza joko dute etzi eguerdiko kontzertuan eta, euririk egiten ez badu, kalejira egingo dute aurretik. **Silbia**

Musika Bandaren kontzertua domekan

Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez Barbak zuzenduta, honako egitaraua eskainiko dute: "España Cañí" (pasodoblea, P. Marquina), "Ero-Aldi" (umoristikoa, B. De Gabiola), "El asombro de Damasco" (aukeraketa, P. Luna), "The Best of Mancini" (aukeraketa, V. Beobide) eta "Benny Goodman Memories" (aukeraketa, Naohiri Iwairren konponketak). Euririk egiten ez badu, kontzertuaren aurretik, 11:30ean kalejira egiteko asmoa dute.

Fruta-brotxetak meriendatzeko

Aurreko barixakuan, "Barixakuak Jolasian" ekimenaren barruan, fruta-brotxetak egin zituzten guraso berbalagunek eta horien seme-alabek. Era guztietako frutak izan zituzten eskura: sagarrak, madariak, meloia, platanok, marrubiak... Frutari itxura ezberdinak eman eta gero, brotxeta politak egin zituzten. Amaitzeko, brotxetak txokolatetan busti eta tripa bete-bete eginda irten ziren poz-pezik...eta kitto!-tik. Hurrengo saioa apirilaren 29an izango dute; egun horretan, umeek, antzerkia prestatuko dute gurasoen aurrean antzezteko.



Sostoaren kontzertu sakroa

Bihar 20:00etan Sostoa abesbatzak urtero ematen duen kontzertu sakroa hartuko du Karmengo Amaren elizak. Kontzertuaren lehen zatian eliza giroko hainbat kantu abestuko dituzte, tartean Bizente Goikoetxearen bat, bere heriotzaren mendeurrena gogoan. Eta bigarren zatian, berriz, Sostoa hainbat kidek (Arrate Iñarrairegi, Edurne Laskurain, Juan Luis Garate, Alberto Garro, Mariluz Hernandez eta Tere Martin, Isabel Laspiurrek pianoarekin lagunduta) garai ezberdinetako abesti erlijiosoak bakarka kantatuko dituzte. Kontzertua agurtzeko, 'Ez dok Amairu'-ren aurrekoa izan zen Michel Labegerie-ren pare bat abesti eskainiko dituzte, aurrean bere jaiotzaren 50. urteurrena betetzen dela-eta.



Zuzeneko musika Ipur sagardotegian

Gaur 20:00etan, Fernando Machin, Oscar Martinez-Toledano, Aitor Irisarri eta Oscar Sola laukoteak osatutako CV rock talde eibartarrak kontzertua emango du Ipur sagardotegian. Hogei urtetik gorako ibilbidea duen taldeak bere kantuekin batera bertsioren bat edo beste eskaintzeko asmoa du. Eta bihar, berriz, El Bohemio-k jardungo du afalostea girotzen.

Kultuko Bertso Astea

Arrate Kultur Elkarteak, Kultu tabernaren eta Hankamotxak bertso eskolaren laguntzarekin, Bertso Astea antolatuko du apirilera: tabernako saioa 6an izango da, 19:00etan Kultun, Oihana Bartra, Asier Azpiroz eta Jokin Bergara bertsolariekin. Eta 8an, berriz, bertso afaria egingo da, 21:00etan Sustrai Colina eta Agin Laburu bertsolariekin. Afarirako tiketak Kultun daude salgai, 20 eurotan bazkide eta langabetuentzat eta 24 eurotan gainontzekoentzat.



Piropo lehiaketako sariak banatu dituzte

Astelehen arratsaldean banatu zituzten Eibarko euskaltegi biek eta udalak antolatutako piropo lehiaketako sariak Portalean. Epai-mahaiak Iñaki Serranoren "Zu ikustean, hego haizea sartzen zait, eta iparra galtzen dut" saritu du eta beste saria, berriz, Jonatan Alustizaren "Irribarre egin, zure ezpaineekin egin dezakezun bigarren gauzarik hobereana izan daiteke eta" proposamenarentzat izan da, lehiaketara aurkeztutako 45 piropoen artean interneten boto gehien (boto guztien %35) horrek jaso du-eta. Serrano ezin izan zen sari-banaketa ekitaldira joan, baina bere ordeiz Elaia alabak pozarren jaso zuen aitaxoren saria.



Eguen Zuriko sariak eta erakusketa

Martxoaren 23an, eguaztenean, arratsaldeko 19:00etan banatuko dituzte Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XIX. Eguen Zuri Argazki lehiaketako sariak Topalekuan eta, horrekin batera, apirilaren 3ra arte ikusgai egongo den erakusketa inauguratuko dute, nahi duenak saritutako lanak zein lehiaketara aurkeztutako beste argazki batzuk ikusteko aukera izan dezan.



Txema Serrano ETB-n

Txema Serrano Klub Deportiboko argazkilaria ETB-ko "El Foco" atalean elkarrizketatu zuten martitzenean, Bizitegi elkartearen eskutik otsailaz gerotik Bilboko Metroan ikusgai izan duen etxerik gabekoen argazki erakusketaren harira. Nahi izanez gero, Nahieran bideoa ikus daiteke, hilaren 15eko (martitzeneko) "Gaur Egun gauean", 38. minutetik aurrera.

Gazteen ahotsak sarean

Badihardugu Elkarteak gazteen ahotsa jaso eta zabalteko asmoz aisialdira bideratutako proiektua abiarazi du: "Gazte Gara Gazte". Proiektuko arduradunen berbetan, "besteak beste, gazteen euskararen ezagutza sustatu, baliabide praktikoak eta errealak eskaini eta motibazioan eragitea du helburu. Horretarako, Euskal Herri osoko gazteen hizkera jasotzearekin genion 2014an, batez ere bi gai lantzeko: aisialdia eta hizkuntza. Nola bizi dute aisialdia gazteenek? Nola aldatu dira ohiturak azken urteotan? Zer zaletasun dituzte? Eta euren aisialdian zer leku dauka euskarak? Nola uztartzen dituzte euskara eta erdarak? Guzi horren inguruko lekukotasunak aurkituko dituzu webgune honetan. Eta horrekin batera, gazteen euskaraz erabiltzen duten gazte hizkeraren euskal hitzegia ere atorduko digu.

Bi urtetan 80 hiztunetik gora elkarriketatu dituzte, "gazteak gehienak, baina baita gazteekin lanean dihardutenak ere. Zaletasun desberdinak dituzten gazteak hautatu ditugu: mendizaleak, musikariak, bertsolariak, aktoreak, futbolzaleak, rallyzaleak... Eta euren aisialdiaz eta ohiturez galdetu diegu. Helburua, beste gazte batzuei euskarazko ereduak ematea eta interesatzen zaizkien gaien inguruko informazioa euskaraz modu erakargarrian jaso ahal izatea da". Aitor Errazkin Badihardugu Elkarteak kidea izan da proiektuaren arduradun nagusia, eta berak egin ditu elkarriketa gehienak. Horiek guztiak Gazte Gara Gazte webgunean (gazteak.ahotsak.eus) jaso dituzte, hainbat ataletan sailkatuta. Horrekin batera lagunarteko erregistro informala jasotzen duen Gazte Hitzegia ere osatzen dihardute: "Fitxa lexikala du oinarritzat, hainbat eremu gehitzeko aukerarekin (argazkia, bideoa, bestelako loturak...). Dagoe-



nean (gazteak.ahotsak.eus) jaso dituzte, hainbat ataletan sailkatuta. Horrekin batera lagunarteko erregistro informala jasotzen duen Gazte Hitzegia ere osatzen dihardute: "Fitxa lexikala du oinarritzat, hainbat eremu gehitzeko aukerarekin (argazkia, bideoa, bestelako loturak...). Dagoe-

neko 752 sarrera ditu hitzegiak, baina etengabe hitzak gehitzen ari gara. Gainera, erabiltzaileek ere aukera dute iruzkinak gehitu edo ekarpenak egiteko". Bideoteka atalean, bestalde, gazteen intereseko gaien inguruan osatutako 10 ikus-entzunezko eskegi dituzte.

Agur Antzerki Jardunaldiei: 6.000 bat lagun izan dira lanak ikusten

Eguaztenezan Artedramak taularatutako "Etxekoak" antzezlanak agurtu ditu aurtengo Antzerki Jardunaldiak eta antolatzaileek bezperan deitutako prentsurrekoan esan zuten, oraingoan ere balorazio positiboa egiteko moduan dira: "Jardunaldietan 20 konpainiak hartu dute parte eta, eskainitako lanak antzeztan 65 lagunek jardun dute taula gainean". Juan Ortegak azpimarratu zuenez, "gaur egun ez dago Euskal Herriko horrenbeste talde elkartzea lortzen duen beste jaillirik. Bestalde, guk balio handia ematen diegu gure Jardunaldiei, baina he-



Juan Ortega, Patxi Lejardi eta Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" herenegun emandako prentsurrekoan.

mendik kanpora ere oso estimatuak dira". Jendearen erantzunarekin pozik daude: "Jardunaldiak agurtzeko egun baten faltan, 6.000 bat lagun

izan dira antzeztan bat ikusten. Orohar lan guztiek erakarririk dute jendea, batzuk beste batzuek baino gehiago, baina denetan ibili da jendea. Fae-

mino eta Cansadoren lanaren emanaldi biek, Verónica Forqueren "Buena gente"-renak, "Chihuahua Cabaret"-ek, "La magia de Yunke"-k... harrera ezin hobea izan dute.

Bestalde, nabarmentzekoa da euskerazko antzeztanek izan duten arrakasta, "Pankreas" eta "Heroiak" lanak herritarren oso gustukoak izan dira". Aurtengo jardunaldien aurrekontua 260.000 eurokoa izan da eta kopuru horretatik 57.000 bat euro berreskuratu dituzte sarreraren salmentari esker (%55 leihatilan eta beste %45 internet bidez saldu dira).



Nerea Mendizabalen hitzaldi interesgarria

Umeei "mugak" ipintzeko moduz berbetan egon zen Nerea Mendizabal psikopedagogoa martitzenezan ...eta kitto!-n. Antolatzaileek azaldu digutenez, "gurasoei primerako hitzaldia eskaini zigun. Gure seme-alabak nola izatea gustatuko litzaigukeen eta guraso eta seme-alaben arteko harremana nola izatea gustatuko litzaigukeen definitu eta gero, mugak nola ipini definitzen hasi ginen. Ondorioztatu genuenez umeen mugak beharrean, helduen mugak zeintzuk diren identifikatu behar dugu, eta asertibitateaz eta enpatiaz jokatu. Adibide asko ipini zituen eta erraza izan zen geure burua hainbat egoera eta jokaekin identifikatzea". Gaiak luzerako ematen duenez, interesa dutenek www.hartueman.com helbidean gaiari buruz sakontzeko aukera daukate.

Karakateko irteerak

Soraluzeko Harrien Lagunak taldeak antolatuta, bisita gidatuak antolatu dira Aste Santuko hiru egunetarako: eguena (hilaren 24a), barixakua (25a) eta domeka (27a). Bisita horiek goizeko 10:00etan abiatuko dira Karakateko antenatik eta megalitismoaren inguruan jardungo dute, "baina aurkikuntza berriak erakutsiz". Joan-etorria 4-5 ordukoa izango da.



Aukera Azoka Durangon

Dendak Bai elkarteak antolatuta, XI. Aukera Azoka egingo dute asteburu honetan Landako Gunean. 19 komertzio eskainiko dituzte beharpenak, aurten eta aurreko denboraldietan soberan geratutako produktuetan. Barixakua eta zapatuan (10:00/14:00 eta 17:00/21:00) egongo da zabalik azoka eta domekan, berriz, (11:00/14:00 eta 17:00/19:00). Azokaren harira umeentzako ludoteka, ipuin kontalaria eta beste jarduerak batzuk eskainiko dituzte.



Kardantxulo Eguna Itziarren

Zapaturako Kardantxulo Eguna antolatu dute Andutz Biltokiak eta Itziarko Auzo Udalak. Bigarrenez izen horrekin ospatuko den jaia aurretik Gazte Eguna izenarekin antolatzen zen. Jaia 11:00etan hasiko da, Pirritx eta Porrotx-en 'Eskuetan' abestiarekin plazan flashmob-a eginda. Jarraian txotx egin eta hamaiketako hartzeko aukera izango da eta, ondoren toka txapelketa eta triki poteoa egingo dira. Antolatzaileek gerturatzen direnei ijitoz jantzita joateko eskatu dute.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Eduardo Dominguez Albisua. 91 urte. 2016-III-9.
- Alejandro Larreategi Gorrotxategi. 87 urte. 2016-III-11.
- Josefina Lopez Pesquera. 90 urte. 2016-III-13.
- Maria Gisasola Baskaran. 88 urte. 2016-III-13.
- Amelia Cejudo Lopez. 86 urte. 2016-III-16.

jaiotakoak

- Jon Hernandez Lahidalga. 2016-III-4.
- Ibai Garrido Lopez. 2016-III-10.
- Danel Garrido Lopez. 2016-III-10.
- Lucia Rodriguez Gutierrez. 2016-III-11.
- Martin Rodriguez Gutierrez. 2016-III-11.

SUDOKUA

			4				8	9
			2				7	5
	9				5			4
2		9			4			7
		4				8		
7			8			1		2
8			5				7	
	7	6			8			
3	1				2			

4	5	3	9	6	8	2	7	1
1	2	7	4	5	3	8	9	6
9	6	8	1	2	7	3	4	5
6	7	1	3	8	9	4	5	2
2	3	9	6	4	5	1	8	7
5	8	4	7	1	2	6	3	9
8	4	6	5	9	1	7	2	3
7	1	5	2	3	4	9	6	8
3	9	2	8	7	6	5	1	4

AURREKOAREN
EMAITZA

farmaziak

- Barixakua 18
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
 - Zapatua 19
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
 - Domeka 20
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
 - Astelehena 21
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
 - Martitzena 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 - Eguaztena 23
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
 - Eguena 24
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
 - Barixakua 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
 - Zapatua 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 - Domeka 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
 - Astelehena 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
 - Martitzena 29
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
 - Eguaztena 30
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
 - Eguena 31
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
 - Barixakua 1
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 18**GAZTELEKUA****16:30.** Play/Wii.
Indianokuan.**EIBARKO KANTUZALEAK****17:00.** Abesbatzaren
kontzertua. San Andres
zaharren egoitzan.**AURKEZPENA****18:30.** Nalua talde
feministarena, "11 emakume,
11 bizipen, borroka 1"
dokumentalaren
estreinaldia eta
"Mantazpitik" poesia
musikatu emanaldia.
Portalean (areto nagusian).**BIHARRIAN****19:30.** "SkizopozikS"
errezitaldi hitzesperimentala.
Biharrarian-en (Ubitxa, 16-18).**KONTZERTUA****20:00.** CV rock taldea.
Ipur sagardotegian.**Zapatua 19****LORE AZOKA****09:00-14:00.** Lore,
landare eta zuhaitz azoka.**11:30.** Lora lehorrekin
"orri-markatzekoak"
egiteko tailerra. Urkizun.**BIHARRIAN****11:00.** "Gurian... katakrak
liburuak". Biharrarian
(Ubitxa, 16-18).**EIBAR-SAHARA****11:00-19:00.** Elkartearen
bigarren eskuko liburuen
salmenta. Untzagan.**ASTELENA HAUR PARKEA****11:00-14:00 & 16:30-
20:30.** 2-12 urte bitarteko
umeentzat. 3 euro. Astelena
frontoian.**HITZALDIA****11:30.** DYA-ko boluntario
izateko informatiboa.
Portalean.**KONTZERTUA****12:00.** Belaunaldiarteko
Topaketa. Kaleetan
Kantuz-en 10 urteak
ospatzeko. Sarrera:
euro bi. Coliseoan.**GAZTELEKUA****17:00.** Sare sozialen
inguruko solasaldia.
Indianokuan.**UMEENDAKO ZINEA****18:00.** "Bob Esponja.
Un héroe fuera del agua".
El Corte Inglesean.**URTEKO BATZARRA****18:30.** Goi Argi
elkartearena. Goi Argin
(Torbio Etxebarria, 19-1).**KONTZERTU SAKROA****20:00.** Sostoa abesbatza.
Karmeldarren elizan.**KONTZERTUA****22:30.** "El Bohemio",
afalostean. Ipur
sagardotegian.**JAIA****23:00.** "E.G.B.-ra buelta"
jaia. Punto y Aparten.**JAIA****23:00.** Udaberri Jaia.
Ametsa tabernan.**KONTZERTUA****23:30.** Red Rombo taldea.
Ez Dok tabernan.**Domeka 20****BIHARRIAN****11:00.** "Gurian... katakrak
liburuak". Biharrarian
(Ubitxa, 16-18).**12:00.** "Biharrarian Bertsotan"
saioa, Maialen Lujanbio
eta Andoni Egañarekin.
Biharrarian-en (Ubitxa, 16-18).**EIBAR-SAHARA****11:00-19:00.** Elkartearen
bigarren eskuko liburuen
salmenta. Untzagan.**ZUHAITZ EGUNA****12:00.** 40 zuhaitz
landatuko dira. Usartzan.**KONTZERTUA****12:30.** Cielito Musika
Banda. Coliseoan.**GAZTELEKUA****17:00.** Filma.
Indianokuan.**AGENDA
etakitto.eus****Eguaztena 23****EGUEN ZURI****19:00.** XIX. Argazki
Lehiaketako sari-banaketa
ekitaldia eta erakusketaren
inaugurazioa. Topalekuan.**Eguena 24****KARAKATEKO IRTEERA****10:00.** Soraluzeko Harrien
Lagunak-ek antolatuta,
bisita gidatua Karakaten.
Antenatik abiatuta.**Barixakua 25****KARAKATEKO IRTEERA****10:00.** Soraluzeko Harrien
Lagunak-ek antolatuta,
bisita gidatua Karakaten.
Antenatik abiatuta.**Zapatua 26****DEBABARRENA-TRUK****10:00-15:00.** Truke eta
bigarren eskuko azoka,
Debanatura, Ingurumen
heziketarako elkartearen
eskutik. Untzagan.**Domeka 27****KARAKATEKO IRTEERA****10:00.** Soraluzeko Harrien
Lagunak-ek antolatuta,
bisita gidatua Karakaten.
Antenatik abiatuta.**zinea Coliseoan****(1 ARETOAN)****19an: 19:45, 22:30****20an: 20:00****21ean: 20:30****"Brooklyn"**

Zuzendaria: John Crowley

**(2 ARETOAN)****19an: 17:00, 19:45, 22:30****20an: 17:00, 20:00****21ean: 20:30****"La modista"**

Zuzendaria: Joc. Moorhouse

**(ANTZOKIAN)****19an: 17:00 (1), 19:45, 22:30****20an: 17:00 (1), 20:00****21ean: 20:30****"El Pregón"**

Zuzendaria: Dani de la Orden

**(ANTZOKIAN)****19an: 17:00****20an: 17:00****"Kung Fu Panda 3"**

Zuzendaria: Jennifer Yuh



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AINARA, hillaen 24an 9 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat Eibarko aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, SARE, haraiñegun sei urte egin zenduaz-eta. Ondo pasa merendolan. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NAIA, hillaen 21ian lau urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxixa-amama eta famelixaren partez.



Zorionak, PATXI, 21ian zazpi urte beteko dozuz-eta. Muxu pilla bat aitta, ama eta zure arrebatxo Mirenen partez.



Zorionak, TELMO, atzo bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Enekoren partez.




Zorionak, neska haundi, astelehenian urtiak egin zenduaz-eta. Zure famelixaren partez, maittasunez eta alaittasunez.




Zorionak, GALDER, bixar gure futbolistak bost urte egingo dittu-eta. Txokolatzeko muxuak famelixa guztiaren partez.




Zorionak, AMETS, hillaen 24an 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundixa famelixaren eta, batez be, anai Hodeiren partez.



Zorionak, PELLOtxo!, hillaen 14an lau urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRAIA, atzo lau urte egin zittuan-eta etxeko printzesak. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, gure printzesa!, 15ian lau urte egin zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Xabi eta Mararen partez. Segi holan alai!



Zorionak, ELENE, martitzenian bi urte bete zenduazelako. Patxo mordo bat gure sorgintxuarentzat, famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, atzo zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ITSASO, hillaen 22xan 5 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekiren partez.



Zorionak, MIREN, astelehenian 11 urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, MAIALEN, astelehenian 7 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Ibaireren partez.

Zorionak, LOURDES, zure lehelengoko urtetxuan, eta JON, 50 egitterakuan. Muxu asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak; UXUE eta NEREA, bixar hiru urte beteko dozuez-eta. Patxo haundi bat etxekuen partetik.



Zorionak, ANE, hillaen 27xan 10 urte egingo dozuzelako. Muxu haundi-haundi bat etxekuen partez.

Erakusketak

Martxoaren 20ra arte: "Itsaspeko bihotzak" (*Juan San Martin liburutegian*) "06/16". Gorka Larrañaga (*Portalean*)

Martxoaren 23ra arte: "Zatarra arte izan arte!". Ana Orozko (*Armagintzaren Museoa*) "Vivencias". Mateo Guilabert (*Untzagako Jubilatutxuan*)

Martxoaren 31ra arte: Juan Ignacio Aizpurua (*Ei Ambigú kafetegian*)
Anna Selga (*Portalea tabernan*)
Kepa Gonzalez (*Klub Deportiboan*)
Iñaki Campos (*Ez Dok tabernan*)

Apirilaren 2ra arte: "Paisaia naturalak". Juan Antonio Palacios (*Ei Corte Inglés-ean*)

Apirilaren 3ra arte: "Erraketistak: gure aitzindariak gogoan" (*Portalean*)
Eguen Zuri Argazki Lehiaketako lanak (*Topalekuan*)



Zorionak; TELMO eta amama MARIKAR. Etxeko txikixak urtetxua domekan beteko dabelako eta zeuk, amama, urtiak sasoi onian eruaten dozuzelako. Muxuak Maia eta famelixaren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Buhardilla salgai. Berriztuta. Tel. 634-453097.
- Amañan pisua salgai. 2 logela, egongela eta ganbara. Jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 671-439939.
- Pisua salgai Ipuruako bolera ondoan. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa. Merke. Tel. 675-248806.

1.2. Errentan

- Pisu txikia behar da Eibarren. Ahal denik eta arinen. Tel. 634-458275.
- Pisu txikia hartuko genuke errentan Eibarren edo inguruan. Tel. 602-674359.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 630-407207.
- Epe motzean, Elgoibarko Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabilta. Tel. 943-254252 eta 645-599810.
- Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

- Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.
- Lokala alokagai Urkiko Polonia Etxebarrian. Gazteendako egokia. Tel. 688-803449.
- Garaje itxi handia alokagai, Urkizuko dorrean azpian. Tel. 649-977852. Mari Carmen.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-220789.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 671-897262. Rosi.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-911709.
- Gizona eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. DYAKo soroslea eta Gerontologia titulua erekin. Tel. 662-638500.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-181350.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 744-403068.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gauzez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-832388 eta 633-808931.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-425686.
- Emakumea eskaintzen da era guztiarako garbiketara lanak egiteko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 687-362183.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-411705.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-466742.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 612-278600.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egin, nagusiak zaindu eta sukaldar-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-329868.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-024132.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 635-143762.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-683273.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta sukaldar-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta gida-baimenarekin. Tel. 695-701753.
- Gizonezkoa eskaintzen da arratsaldez edozein lan egiteko. Tel. 693-232959.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 689-571882.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erizain-laguntzaile titulua erekin. Tel. 688-826968.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzaile. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Neska eskaintzen da pegorak, tabernak etb. garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-790555.
- Neska eskaintzen da pegorak, tabernak eta abarrak garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 626-914904.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-248959.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245889.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. Tel. 663-358003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-441517.

- Mutila eskaintzen da garbiketara lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia kamarero moduan eta lantegian. Tel. 625-997599.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 602-022174.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-099453.
- 53 urteko emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 634-110341.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-767696 eta 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 697-372374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 663-524539.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 696-509360.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Tel. 634-748531.
- Neska eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan bi orduz nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-758270.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, jabetxean lagundu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-981157 eta 602-090439.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- DBH, Batxilergoa eta partikularren azterketak prestatzeko klase intentsiboak ematen ditut. Tel. 685-939709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Sehaska salgai, koltxoierekin. Ia berria. 100 euro. Tel. 687-675484. Arantza.
- Egongelako alfonbra handia salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 606-882043.
- Solarium bertikala salgai, plataforma biratorioarekin. Tel. 619-679523.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Autorako GPS edo tantan-a aurkitu dut eta Udaltzaingoaan laga dut.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Gin Tonic lehiaketa

Apirilaren 15etik 17ra

Finala:
Apirilaren 22an
Untzaga plazan



Informazioa eta oinarriak:
etakitto.eus/berbetan
943 200918



etakitto.eus



zure elkarte edo taldearen
informazioa
zabaldu nahi duzu?

etakitto.eus webgunearen
KOMUNITATEA atalaren bidez egin dezakezu.

Jar zaitez gurekin harremanetan: komunikabideak@etakitto.eus

2016ko AURREKONTUAN LORTU DITUGUN AKORDIOAK:

HIRI EREDU BERRIA

- Eibarren Ekocenterra inplantatzeko-plana eta 2017an martxan jartzeko konpromisoa
- Biomasazko galdarak jartzea eskoletan
- Kiroldegietan biomasazko galdarak jartzeko proiektua
- Zezen-plazako parkea amaitzea
- Errebal-Estaziño bidegorriaren proiektua
- Sautsi auzorako sarrera konpontzeko proiektua
- Mekola-Ardantza konpontzeko bideragarritasun proiektua
- Irisgarritasun proiektua Arrate-bide auzora
- Gaikako zaborrontziak kalean
- Erosketetan tupperrak erabiltzeko kanpaina



EZKERRETIK ERAIKIA



- Bizigune programaren kanpaina (etxebizitzaren alokairua sustatzeko)
- Otordu zerbitzua menpekotasuna dutenen etxeetara
- Ipuruako plazaren espazioa definitzea berrikuntza eta ekonomia alternatiboetan oinarrituta

EUSKALDUNA ETA KULTUR ANITZA

- Eta Kitto Euskara Elkartearantzako diru-laguntza berrikuntzetarako
- Txonta kulturala
- Etorri-berrientzako harrera-proiektua
- Zine-bonoa Coliseorako



KOHESIO SOZIALA

- Drogomenpekotasunaren inguruko lanketa
- Eibarko diagnostiko soziala eta etxegabeen zentsoa

PARTE-HARTZEA

- Herri hezitzailea, hiria haurren ikuspegitik
- Bittor Sarasketan auzo-etxea definitzeko parte-hartze prozesua
- Bus geltokiaren kokapenaren inguruko parte-hartze prozesua eta lekua erabakitzeke herri-galdeketa
- Kexa eta iradokizunen aplikazioa



PARTIDARIK GABEKOAK

- Kultura eta jaien mahaia sortzea
- Eibarko elkarteenzako lokalen beharrari alternatibak bilatzea
- Eibarko Udala Goienarren bazkide



**IA 800.000 € EIBARTARRON
BEHARRETAN INBERTITZEKO.
BESTE EREDU BAT ARI GARA ERAIKITZEN.**